

ZUHAITZ BATZUEK ZERGATIK MANTENTZEN DITUZTEN HOSTOAK NEGUAN

Aspaldian, baso abartsu batean, negua zetorren. Hotz ikaragarria egiten zuen eta txori migratzaileak hegoaldera joan ziren, han egoteko udaberria iritsi arte. Baina koloretako txoritxo bat atzean geratu zen, hego bat hautsita baitzuen eta ezin baitzuen hegan egin. Ez zekien zer egin. Inguruan begiratu zuen, babestuko zuen leku baten bila, eta baso handi hartako zuhaitz ederrak ikusita, pentsatu zuen:

– Agian zuhaitzek babestuko naute negua igaro bitartean.



Basoaren bazterrera iritsi zen.
Aurkitu zuen lehenengo zuhaitza,
zilar koloreko hostoak zituen, makal
zuri handientsu bat izan zen.



– Utziko al zenidake eguraldi ona
iritsi arte zure adarretan bizitzen,
makal eder horrek?


– Baita zera ere! A zer nolako
ideia! Nahikoa lan badut nik
nire adarrak zaintzen. Zoaz
hemendik!




Txoritxo gaixoak, hego bat hautsita zuela, ahalik eta hoberen
eragin zituen hegoak beste zuhaitz batera iritsi zen arte.
Zuhaitza, haritzondo handi eta hostotsu bat zen.

– Haritzondotxo, zure adarretan bizitzen utziko al zenidake,
eguraldi ona iritsi arte?

– A zer nolako galdera! Nire gerizpean egonez gero, nire ezkur
guztiak mokokatuko dituzu! Alde hemendik!






Txoritxoa belar eta hosto tartean saltoka joan zen hegala min handia ematen baitzion eta, bat-batean, ibaiertzean zegoen sahats bat topatu zuen.

Sahats polita, aukera emango al zenidake zure adarretan bizitzeko eguraldi ona iritsi arte?

– Ez, inondik inora ere ez. Ez diet ezezagunei gerizperik ematen. Ospa hemendik!



Txori gaixoa, etsiak hartuta, negarrez hasi zen, baina orduan, izeiak, txoria ikusi eta honako hau galdetu zion:

- Nora zoaz txoritxo?
- Ez dakit, zuhaitzek ez didate gerizperik eman nahi eta, hegal bat hautsita dudanez, ezin dut urrutira hegan egin.
- Zatoz nirekin, eta gogokoen duzun adarra aukeratzen utziko dizut. Begira, nik uste, alde honetan goxoago egongo zarela.
- Mila esker! Dena den, negu osorako gera naiteke?
- Noski baietz! Horrela, lagun egingo didazu.




Pinua, bere lehengusu izeitik gertu bizi zen
eta txoritxo adarretan poz- pozik saltoka eta
hegaldakatzen zebilela ikusirik, honako hau esan
zion:

– Nire adarrak ez dira hostotsuak, baina izeia
babestu dezaket haizearen kontra, oso handia eta
indartsua naiz eta.




Ipuruak hori jakin zuenean, hark ere lagundu nahi izan zuen:

– Txikia naiz eta nire adarrak ez dira erosoak, baina neguan jan ditzakezun baia asko dauzkat –esan zuen. Haren adarrek baia beltz urtsuak zituzten eta ipuruen baiak jaki gozo eta aparta dira txorientzat.




Txoritxoa oso pozik zegoen bere etxean, bero-bero eta ondo babestuta. Gainera, egunero joaten zen ipuruarengana baia beltzak jatera.



Hiru zuhaitzak basoko bazter batean hizketan gelditu ziren:

- Nik ez nuke ezagutzen ez dudan txori bat hartuko – esan zuen burzuntzak.
- Ni ez nintzateke arriskatu nire ezkurak galtzera – esan zuen haritzak.
- Ez zaizkit ezezagunak gustatzen – esan zuen sahatsak.

Eta hirurek zeharka begiratu zioten txoriari eta bere lagun berriei.




Gau hartan iparraldeko haizea basotik igaro zen. Haizea oso hotza zen. Haizea zuhaitzetan zebilen, eta, hostoak, haren arnasa izoztuak ukitu bezain laster, izoztu eta banan-banan erortzen ziren. Hosto guztiak eror zitezen nahi zuen, hori baita iparraldeko haizeak atsegin duena; hostoak hegan eta zuhaitzak biluzik ikustea.

– Zuhaitz guztiekin jolas dezaket? – galdetu zion iparraldeko haizeak bere aitari, Izotz Zuri erregeari.


– Ez – esan zuen erregeak. –Txoritxoarekin ondo jokatu duten zuhaitzek beren hostoak mantendu ditzakete.





Beraz, iparraldeko haizeak bakean utzi zituen pinua, ipurua eta izeia, eta hala, zuhaitzek txoritxoa zaindu eta babestu zuten haren familia udaberrian itzuli zen arte. Zuhaitzek hosto guztiak mantendu zituzten berriak kimatu ziren arte. Geroztik, horrela izan da beti.

Amaiera.





Basque



Argitalpena
UNICEF Espainiako Batzordea
www.unicef.es/educa

Haurren eskubideen, garapen iraunkorrerako eta mundu-mailako hiritartasunaren inguruko ekintza, baliabide eta hezkuntza materialak UNICEF Espainiako Batzordeak Haurren Eskubideen Hezkuntza eta Hiritarsun Globaleko lanaren parte dira, lehenago Enredate markapean eta enredate.org web gunean argitaratuta egon direlarik. Bertan erakutsitako ekintza eta iritziek ez dute zertan UNICEFen ikuspuntua isladatu behar.

UNICEFek haur guztien ongizatea eta eskubideak sustatzen ditu egiten dituen ekintza guztietan. Gure aliatuekin batera, 190 herrialde eta eremutan lanean dihardugu konpromiso hau ekintza praktikoetan bilakatzeko, gure esfortzuak batez ere ume ahul eta baztertuenetara bideratuz, haur guztien ongizaterako, edonon.



cooperación
española

Argitalpen hau Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak (AECIDek) finantzaturiko proiektu baten parte da. Argitalpen honen edukiak ez du nahitaez islatzen AECIDen iritzia.



Argitalpen hau Creative Commons Atribución-NoComercial-SinDerivar 4.0 Internacional lizenziapean sortua izan da, beste lizentzia mota bat espreski aipatzen den edukietan izan ezik.